

JARDUERAREN ERREGISTRO-IZENA	ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUA
OINARRI JURIDIKOA	DBEO: 6.1.e) artikulua. Interes publikoaren alde egindako tratamendua. Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
TRATAMENDUAREN XEDEAK	Emakumeendako aholkularitza psikologikorako zerbitzua kudeatzea.
NOR	Zerbitzuaren emakume erabiltzaileak.
DATUEN KATEGORIAK	Izen-abizenak, helbidea, NAN/IFZ, telefonoa, sinadura. Egoera sozialari buruzko datuak. Ezaugarri pertsona eta familiarrei dagozkien datuak Osasun datuak
HARTZAILEEN KATEGORIA	Ez dago aurreikusita datu-lagapenik, legeak agintzen ez badu, baina hartzaileak izaten ahalko dira datu tratamendurik dakarren zerbitzuren bat Udalarekin kontratatzen duten entitateak, enpresak zein norbanakoak. Kasuotan, kontratu batean oinarriturik eginen da sarbidea. Kontratuak berme guztiak izanen ditu barne, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 28. artikuluan xedatutakoarekin bat.
NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIAK	Ez dago.
EZABAKETA-EPEA	Xedea mantentzen den bitartean gordetzen dira, aplikazio-araudiarekin bat (Artxiboei eta Dokumentuei buruzko Foru Legea eta 51/2016 Foru Agindua, ekainaren 14koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako toki entitateen dokumentuak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak onesten dituen).
SEGURTASUN-NEURRIAK	Administrazio Elektronikoaren esparruan ezarritako neurriak urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan daude aurreikusita; dekretu horrek Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen du. Beste esparru batzuk: Datuen konfidentziasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko segurtasun-neurriak: Sarrera-kontrola. Identifikazioa eta autentifikazioa. Euskarrien kudeaketa. Gorabeheren kudeaketa eta segurtasun-arrakalak. Erabiltzaileen eginkizunak eta betebeharrak Segurtasunezko kopiak. Segurtasuna telekomunikazioetan.